

AGENDA

P4-49

Badator Sagarrondotik-en bigarren txanpa : KULTURA LAU HAIZEETARA

Hitzetik txotxera, Sagarrondotik iraganez. Sagardoaren kultura mundura zabaltzea du helburu otsailaren azken asteburuan egingo den ospakizun erraldoi honek. Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkarteak bigarren txanpa antolatuta du Sagarrondotik jaialdia, lazkoa izan baitzen lehen aldia. Lau egunez, otsailaren 26tik 29ra, adin guztietako jendearentzat osatutako egitarau zabal batek alaituko ditu Hernani, Urnieta, Usurbil eta Astigarraga herri gipuzkoarrak. Sagardoaren sehaskari astindurik ez zaio falta-asteburu horretan.

Adinen arteko lotura da jaialdi honen antolatzaileen nahi bat. "Belaunaldiak elkarren artean kateatzeko soka sagardoaren kultura izango da; bere biziraupena ziurtatzeko modu egokia baita belaunaldiz belaunaldiko transmisioa", azaltzen dute antolatzaileek. Kan-

taldi, dantzaldi, kontzertu, herri kirolak, bertso eta nola ez, sagardo dastatzea dira egitarau horren osagaiak.

"Sagardoaren sehaska kuttunera ekarri dugu jaialdia Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartekook" zehazten du antolatzaileek. Iaz Hernanin bakarrik ospatu baldin bazen (nahiz eta aurretik aipatutako lau udalek babestu zuten jaialdia), aurren, jai herri guztietara zabalduko da.

Ostegunean Urnietan abiatuko da jaialdia, Real Sociedad taldeari "Sagardoaren Mezulariak" ikurra eskainiko zaiolarik. Biharamunean, Hernanin da ospatuko kontzertu erraldoia, larunbatekoaren gisara. Egun horretan ere herri kirolak izango dira Usurbilen, eta azkenik, Astigarragan amaituko da jaialdia igandean.



Donostian antolatzaileek emandako prentsaurrekoa

OTSAILAREN 20a, ostirala URNIETA

• 21.00etan, sagardo dastatze komentatua SANTA KRUZ elkartearen Xabier Kamio enologoarekin

OTSAILAREN 26a, osteguna URNIETA

20.00etan Sarobe kultur zentroan:

- Herrera ekitaldia:
- Sagardogileak, Kofradiak eta Elkarteak
- Real Sociedad futbol taldeari "Sagardoaren Mezulariak" ikurraren ematea, European zehar Gipuzkoaren izena zabaltzen ari delako iaz eginiko lan onaren ondorioz.
- Ondoren, "ZAHARREGIA, TXIKIEGIA AGIAN" olerki eta musika emanaldia (Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda)

OTSAILAREN 27a, ostirala HERNANI

• 22.30etan Musika jaialdia karpa erraldoian:

Fito & Fitipaldis (Euskal Herria)

Reincidentes (Andaluzia)

Su Ta Ger (Euskal Herria)

Orisha's (Kuba)

12.000 pertsonentzako kabi-
da duen karpa, Txozna gu-
neak, Diska jartzaileak,
Oilaskoak, bokatak, sagar-
do kupelak.....

OTSAILAREN 28a, larunbata USURBIL

• 17.00etan Herri kirolen le-
hia plazan:

Astigarraga, Hernani,
Urnieta eta Usurbilgo tal-
deak parez pare arituko di-
ra: txingak, sager iltzatzea,
zaku lasterketa, ingudea,
aizkora, trontza, harri-jaso-
tzea eta sokatira.

• Ondoren, sagardo dasta-
tzea, taloak, txorixoa.

OTSAILAREN 28a, larunbata HERNANI

• 22.00etan Musika jaialdia
karpa erraldoian:

Ari (Espainia)

Kuraia (Euskal Herria)

Ojos de Brujo (Katalunia)

**Fermin Muguruza &
Kontrabanda (Euskal
Herria)**

OTSAILAREN 29a, igandea ASTIGARRAGA

**EUSKAL HERRIKO II. SA-
GARDO MOSTRA**

Goizeko 10etatik aurrera
herrian barrena:

- Euskal Herri osoko 60 sa-
gardogileren mostra
- Euskal herriko produktuen
azoka
- Sagardoaren museo ibiltaria

11.00etan "Kata Komentatua"
Xabier Kamio eta Domingo
Arina enologoaren parte hart-
zearekin. Adituen mahai sei
pertsonaia esanguratsuk
osatuko dute.

13.30etan Patxi Perez eta
Iparraldeko dantzarien
ikuskizuna "Dantza Piko".
Eta Astigarragako eta
Hernaniko (Tarla) dantza
taldeek lagundua.

17.00etan Bertsolariak:
S.Lizaso, A.Egaña,
A.Mendiluze, M.Lujanbio

Ondoren trikitilariak



Sagarrondotik
2004

EGITARAU OPAROA